

TREBAKUNTZA 2016-03: DATAK, EGUNAK, URTEAK...

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. *Lezon, 2005eko **Ekainaren** 13an
2. *Lekeition, 2007ko **irailak** 25ean
3. *Osoko bilkuraren hurrengo batzarra irailaren **6ean** izango da.
4. ***2005ko** abenduaren 7an hasiko dira herriko jaiak.
5. *Lekeition, 2007ko abenduaren **8**
6. *Aurten, Aste Santua **2.005eko** martxoaren 19tik 24ra izango da.
7. ***2007 urtean** ez zen diru partidarik onartu euskara ikasteko.
8. *Abenduaren 12an, **asteazkenez**, egingo da bilera.

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. Hilabeteak beti letra xehez (minuskulaz) idatzi behar dira.
Ad. Lezon, 2005eko **ekainaren** 13an (eta ez **Ekainaren*).
2. Zenbakiak deklinatu behar badira, hilabeteari –aren gehitu behar diogu.
Ad. Lekeition, 2007ko **irailaren 25ean** (eta ez **irailak 25ean*).
3. Kontuz egunen zenbakiak deklinatzean!
Ad. Osoko bilkuraren hurrengo batzarra irailaren **6an** izango da (eta ez **6ean*).
ONDO DAUDENAK: 1ean, 2an, 3an, 4an, 5ean, 6an, 7an, 8an, 9an, 10ean, 11n...

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea
www.uema.eus

GAIZKI DAUDENAK: *1an, 6an, 11an...

4. Kontuz urteen zenbakiak deklinatzean!

Ad.: **2005eko** abenduaren 7an hasiko dira herriko jaiak. (eta ez *2005ko).

ONDO DAUDENAK: 2000ko, 2001eko, 2002ko, 2003ko, 2004ko, 2005eko...

GAIZKI DAUDENAK: *2000eko, 2001ko, 2002eko...

5. Gutunetan edo antzeko idazkietan forma hauek erabiliko dira:

Ad.: Lekeition, 2007ko abenduaren **8an** (eta ez *Lekeition... 8a)

Ad.: Lekeitio, 2007ko abenduaren **8a** (eta ez *Lekeitio... 8an)

6. Urteetan, ez jarri punturik zenbakien artean.

Ad.: Aurten, Aste Santua **2005**eko martxoaren 19tik 24ra izango da (eta ez *2.005eko).

7. Urtearen zenbakiaren ondoren “urte” hitza erabiltzen bada, derrigorrezkoa da puntua jartzea.

Ad.: **2007. urtean** ez zen diru partidarik onartu euskara ikasteko (eta ez *2007 urtean).

8. Asteguna ere zehaztu behar baduzu, hiru modu hauek dituzu:

Ad.: Abenduaren 12an, **asteazkena/asteazkenean/asteazkenarekin**, egingo da bilera (eta ez *asteazkenez).

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udal erri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99